

GPS
PROIEKTUA
PROYECTO

IRAKASLEAK
ETA ORIENTAZIOA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



AURKIBIDEA

1- GPS BIDEO-LANTEGIAK

1- BIDEO-LANTEGIA

Motibazioa. Ni-a

2- BIDEO-LANTEGIA

Norberaren profila eta ikasketa itxaropena

3- BIDEO-LANTEGIA

Etorkizuneko linka

4- BIDEO-LANTEGIA

Aukeratzeko momentua

5- BIDEO-LANTEGIA

Goraka datozen sektoreak eta gaitasun baloratuenak

6- BIDEO-LANTEGIA

Marka pertsonala eta Curriculum Vitaea

7- BIDEO-LANTEGIA

Enplegua bilatzeko Web-orriak eta sare sozialak

8- BIDEO-LANTEGIA

Nola prestatu eta egin lan-elkarrizketak

2- GPS LAN-FITXAK

1- GENERO-IKUSPEGIA LANEAN

1. Fitxa: Etxeko lanak
2. Fitxa: Ikasketen hautaketa eta generoa
3. Fitxa: Emakumeak lan merkatuan
4. Fitxa: Soldata desberdintasunak generoen artean

2- AUTOEZAGUTZA

5. Fitxa: Nor naiz ni? Zer egiten dut ondo?
6. Fitxa: Zer egitea gustatzen zait? Zer balore ditut?
7. Fitxa: Lagunekin afaltzen
8. Fitxa: Etorkizunaren argazkia

3- PRESTAKUNTZA ESKAINTZAK

9. Fitxa: Hezkuntza sistema
10. Fitxa: Lanbideak aztertzen
11. Fitxa: Zer izan nahi dut helduaroan
12. Fitxa: Nire ikasketak aztertuko ditut
13. Fitxa: Nire lanbide proiektua

4- LANERAKO AUKERAK

14. Fitxa: Lan-merkatuari buruzko mahai-ingurua
15. Fitxa: Lan-merkatuaren errealitatea
16. Fitxa: Nire lan bilaketa
17. Fitxa: Neure burua enpresa bati aurkeztea
18. Fitxa: Lan-merkaturako bidea
19. Fitxa: Zer egin dezaket arazo bat badaukat?
20. Fitxa: Lortu ahal dut

5- ENPRESA-SORTZEA

21. Fitxa: Zer izan nahi dut, ekintzaile edo soldatapeko?
22. Fitxa: Ni izan al naiteke ekintzaile?
23. Fitxa: Sor ezazu zure enpresa

3- GPS EDUKI GEHIGARRIAK

1- GPS BIDEOAK: ENPRESEI ELKARRIZKETAK SEKTOREKA

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei zuzendutako genero-ikuspegia duten orientazio akademiko-profesionaleko baliabideak. Helburua ikasleei beren prestakuntza-ibilbidea aukeratzeko eta etorkizuneko proiektu profesionala planifikatzeko laguntzea da

GAITASUN PROFESIONALAK

Gaitasun profesionalen taula

ANTZEZLANAK

"Desorientando.com" antzezlanak
 "Desorientando @ padres y madres" antzezlanak



1

GPS bideo-lantegiak



[< Aurkibidea](#)

GPS BIDEO-LANTEGIAK

MAILA GUZTIAK

Bigarren Hezkuntzako Prestakuntza zentroyen eskura jarritako genero-ikuspegia duten orientazio akademiko-profesionaleko baliabideak. Helburua ikasleei beren prestakuntza ibilbidea aukeratzeko eta etorkizuneko proiektu profesionala planifikatzeko laguntzea da.

<p>1 - BIDEO-LANTEGIA</p> <p>“Motibazioa. Ni-a” - Lantegiaren helburua ikasleek ikasketa eta lanbidea ondo hautatzearen garrantziaz hausnartzea da.</p>	<p>5 - BIDEO-LANTEGIA</p> <p>“Goraka datozen sektoreak eta gaitasun baloratuak” - Lantegiaren helburua ikasleek lan-merkatuaren egoeraz jabetzea eta sortzen ari diren sektoreak eta gehien eskatzen diren gaitasunak ezagutzea da.</p>
<p>2 - BIDEO-LANTEGIA</p> <p>“Norberaren profila eta ikasketa itxaropena” - Lantegiaren helburua ikasleek, beren burua ondo ezagutzeko, ikasketen zein karrera profesionalaren alorrean dituzten lehentasunei buruz hausnartzea da.</p>	<p>6 - BIDEO-LANTEGIA</p> <p>“Marka pertsonala eta Curriculum Vitae-a” - Lantegiaren helburua ikasleek marka pertsonala lantzeko gakoak ezagutzea eta Curriculum Vitae egokia egiten ikastea da, beren helburu profesionalak lortzeko.</p>
<p>3 - BIDEO-LANTEGIA</p> <p>“Etorkizuneko linka” - Lantegiaren helburua ibilbide formatibo eta akademikoak bilatzeko tresnak ematea da.</p>	<p>7 - BIDEO-LANTEGIA</p> <p>“Enplegua bilatzeko Web-orriak eta sare sozialak” - Lantegiaren helburua ikasleek langileak kontratatze bide berriei buruz hausnartzea eta enplegua online bilatzeko dauden tresnak eta sare sozialak ezagutzea da.</p>
<p>4 - BIDEO-LANTEGIA</p> <p>“Aukeratzeko momentua” - Lantegiaren helburua lanbidea hautatzeko uneari aurre egiten laguntzea da.</p>	<p>8 - BIDEO-LANTEGIA</p> <p>“Nola prestatu eta egin lan-elkarrizketak” - Lantegiaren helburua ikasleek lan-elkarrizketari buruzko ezagutza teoriko-praktikoak eskuratzea da, elkarrizketa arrakastatsua izateko.</p>

[< Aurkibidea](#)



2

GPS lan-fitxak

[< Aurkibidea](#)

1. FITXA: ETXEKO LANAK

1 - GENERO-IKUSPEGIA **MAILA GUZTIAK**

HELBURUAK?

Etxeko lanak elkarlanean egitearen garrantzia ikusaraztea, aintzat hartzen:

- Emakume eta gizonen arteko *aldeak* etxeko arloan.
- Etxean egiten den ordaindu gabeko lanaren *balioa*.
- Etxeko lanek eragiten duten *karga* fisikoa zein mentala.

MATERIALAK

- Dokumentua: [Emakumeek gizonak baino gehiago kontziliatzen jarraitzen dute](#).
- Jarduera: [Etxeko lanen banaketa](#).
- Bideoa: [Buelta emaiouzu: berdintasunean partekatu](#).
- Jarduera: [Ministerioak](#).
- Boligrafoak eta margoak.

SAKONTZEKO...

Bideoak:

- [Why is gender equality good for everyone, men included?](#) (ing sub gazt). TED Talk, 2015.
- [Teatro de operaciones - economía del cuidado y desigualdad](#) (gazt). LaPatriadaTV, 2018.
- [GIH 5: genero berdintasuna](#). UNESCO Etxea, 2018.

***Baliabide hauek kontsultatzea borondatezkoa da.*

NOLA EGINGO DA?

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: talde handian eta banaka

- “[Emakumeek gizonak baino gehiago kontziliatzen jarraitzen dute](#)” dokumentua irakurri.
- Eztabaida-saioa talde handian:
 - Etxean egin beharreko zereginak eta zaintza lana al dira? Zergatik?
 - Etxeko lanak ordaindu beharko lirateke?
 - Zer ezberdintasun dago etxean edo etxetik kanpo lan egitearen artean?

10 minutu.



- “[Buelta emaiouzu: berdintasunean partekatu](#)” bideoa ikusi.
- “[Etxeko lanen banaketa](#)” jarduera banaka bete.
- Emandako erantzunak talde handian bateratu.

25 minutu.

2. EKINTZA

Lan-modalitatea: talde txikietan zein handian

- 4 edo 5 ikaskideko **zazpi** talde sortu:
 - “[Ministerioak](#)” jarduera osatu (7 minutu).
- Talde handian bateratu (13 minutu):
 - Nolakoa izan da taldeen errendimendua?
 - Zeintzuk izan dira zailtasun nagusiak?
 - Planifikazioa zeregin bat al da? Zergatik?

20 minutu.

EKINTZA HAU TALDE TXIKIETAN ZEIN HANDIAN EGINGO DA

[< Aurkibidea](#)

[< Aurkibidea](#)

2. FITXA: IKASKETEN HAUTAKETA ETA GENEROA

1 - GENERO-IKUSPEGIA DBH / BATXILERGOA

HELBURUAK?

Ikasketen hautaketan genero-alborapena ezabatzea, kontuan hartuta:

- Lanbideei lotutako genero-estereotipoak.
- Estereotipoak detektatzearen garrantzia, hauek eraginik izan ez dezaten.

MATERIALAK

- Jarduera: [Lanbideak eta profesionalak](#).
- Bideoa: [STEAM neskak eta emakumeak](#).
- Boligrafoak eta margoak.
- Orriak eta kartoi-meheak.

SAKONTZEKO...

Bideoak:

- [Aprender a elegir ¿Qué carrera estudiar?](#) (gazt). TED Talk, 2019.
- [¿Y tú, qué quieres ser de mayor?](#) (gazt). Liga Española de Educación, 2018.

Artikuluak:

- [Genero-arrakalak zientzian dirau](#). Gazteberri, 2021.
- [Goi mailako ikasketen hautua genero-estereotipoek baldintzatzen dutela egiaztatu du Emakundek](#). Argia, 2016.

Blogak:

- [STEAM: baliabide-bankua](#).

**Baliabide hauek kontsultatzea borondatezkoa da.

NOLA EGINGO DA?

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: talde txikietan zein handian

- 4 edo 5 ikaskideko **sei** talde sortu. Taldeen ezaugarriak:
 - Bi talde neskek osatuko dituzte.
 - Beste bi, mutilek.
 - Gainerakoak mistoak izango dira.
- “[Lanbideak eta profesionalak](#)” jarduera banatu eta osatu.

15 minutu.



- Eztabaida-saioa talde handian:
 - Emakumeentzako lanbiderik dagoela uste duzu? Eta gizonentzako lanbiderik?
 - Lanbide bakoitzeko zenbat erantzunetan agertzen dira gizonak? Eta emakumeak?
 - Taldeen artean alderik al dago?

15 minutu.

2. EKINTZA

Lan-modalitatea: talde txikietan

- “[STEAM neskak eta emakumeak](#)” bideoa ikusi.
- 4 edo 5 ikaskideko taldeak sortu:
 - Orri bakoitza erditik tolestu/banandu.
 - Bizitako genero-eraginak identifikatu eta idatzi (itxaropenak, lanbideen irudikapen subjektiboa, besteengandik jasotako iruzkinak...) - ezkerreko aldea.
 - Egoera horiek genero-baldintzatzailek gabe berridatzi - eskuineko aldea.
- Kartoi-meheetan genero-estereotipoak ezabatzen dituzten mezuak jaso.

25 minutu.

[< Aurkibidea](#)

[< Aurkibidea](#)

3. FITXA: EMAKUMEAK LAN MERKATUAN

1 - GENERO-IKUSPEGIA **MAILA GUZTIAK**

HELBURUAK?

- 1) Lan arloan oraindik emakumeek dituzten zailtasunak eta egoera desegokiak ezagutzea.
- 2) Egoera horiek ezabatzeko estrategiak proposatzea.
- 3) Emakumeek zientzian duten papera nabarmentzea, adieraziz:
 - Ikerketa eta zientziaren munduko erreferenteak.
 - Haiek egindako ekarpen nagusiak.

MATERIALAK

- Jarduera: [Oztopoak](#).
- Bideoa: [Zer gertatuko litzateke Einstein emakumea izan balitz?](#).
- Kartoi-meheak.
- Boligrafoak eta errotuladoreak.
- Ordenagailuak.

SAKONTZEKO...

Bideoak: [Emakumeak zientzian](#). Emakunde, 2017.**Artikuluak:**

- [Ez dezala zure generoak etorkizuna agindu](#). Gazteaukera, 2018.
- [Jakintza-arlo ezberdinetako emakumearen presentzian desparekotasun handiak daude](#). Etorlan. 2021

Blogak:

- [Mujeres con ciencia](#) (gazt).
- [11 de febrero](#) (gazt).

***Baliabide hauek kontsultatzea borondatezkoa da.*

NOLA EGINGO DA?

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: talde txikietan zein handian

- 4 edo 5 ikaskideko taldeak sortu:
 - “[Oztopoak](#)” jarduera banatu eta osatu.
- Eztabaida-saioa talde handian:
 - Zure ustez, gaur egun emakumeek oztopo horiei aurre egin behar diete lanean? Zure ingurune hurbilean bizitako adibide bat eman.
 - Zein da egoera horiek gertatzeko arrazoi nagusia?
 - Oztopo hauek emakumeek bakarrik izaten dituzte, edo gizonek ere bai? Horrela bada, zeintzuk dira gizonezkoengan eragina dutenak?
 - Zer estrategiek aurre egin diezaiekete egoera horiei?

25 minutu.

2. EKINTZA

Lan-modalitatea: talde txikietan zein handian

- “[Zer gertatuko litzateke Einstein emakumea izan balitz?](#)” bideoa ikusi.
- Talde handian komunean jarri:
 - Ezagutzen dituzun emakume zientzialari edo/eta ikerlariak aipatu.
 - Zer ekarpen egin dute?
 - Gizonek egindako ekarpenak bezala baloratu direla uste duzu? Zergatik?

15 minutu.

- 4 edo 5 ikaskideko taldeak sortu:
 - Zientzia eta ikerketa arloan aitzindari izan diren emakume gehiagori buruzko informazioa bilatu odenagailuetan.
 - Haien datu biografikoak zein merezimenduak kartoi-meheetan jaso.

20 minutu.

EKINTZA HAU TALDE TXIKIETAN ZEIN HANDIAN EGINGO DA

[< Aurkibidea](#)

[< Aurkibidea](#)

4. FITXA: SOLDATA DESBERDINTASUNAK GENEROEN ARTEAN

1 - GENERO-IKUSPEGIA **MAILA GUZTIAK**

HELBURUAK?

- 1) Emakumeen eta gizonen arteko soldata-desberdintasunen existentzia eta inpaktua ezagutzea.
- 2) Egoera hauen aurrean jarrera kritiko eta proaktiboa garatzea.

MATERIALAK

- Bideoa: [Soldata-arrakala - spot](#).
- Dokumentua: [Pobreziak generoa du](#).
- Boligrafoak eta errotuladoreak.
- Kartoi-meheak.

SAKONTZEKO...

Bideoak:

- [Umeek ez badute soldata arrakala ulertzen, zergatik ulertu eta onartu helduok?](#)
- [El pago desigual entre mujeres y hombres... Eh! \(gazt\)](#). EhUniverso, 2018.

Artikuluak:

- [Emakumeek gizonen baino gutxiago kobratzen dute lan beragatik? Mitoa ala errealitatea?](#) Argia, 2018.
- [La gravedad de la desigualdad de género en la Unión Europea](#) (gazt). Euronews, 2021.

***Baliabide hauek kontsultatzea borondatezkoa da.*

NOLA EGINGO DA?

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: talde txikietan zein handian

- Eztabaida-saioa talde handian:
 - Generoaren arabera al dago soldaten artean?
 - Zeintzuk dira bere kausa nagusiak? Eta bere ondorioak?
 - Zein lanpostu eta/edo sektoretan gertatzen da gehien?
 - Komentatu zure inguruan dagoen kasuren bat.

15 minutu.



- 4 edo 5 ikaskideko taldeak sortu:
 - “[Soldata-arrakala - spot](#)” bideoa ikusi.
 - “[Pobreziak generoa du](#)” dokumentua irakurri.
 - Alderdi deigarrienak laburki komentatu eta soldata-arrakala definitu.

10 minutu.



- Pobreziaren aurkako plana diseinatu, galdera hauen arabera:
 - Nori dago zuzenduta?
 - Zein estrategia erabil daitezke egoera honi aurre egiteko?
 - Nola ezarriko da?
- Planteatutako proposamenak kartoi-meheetan jaso.

30 minutu.

[< Aurkibidea](#)

[< Aurkibidea](#)

5. FITXA: NOR NAIZ NI? ZER EGITEN DUT ONDO?

2 - AUTOEZAGUTZA DBH / BATXILERGOA

HELBURUAK?

- 1) Autoezagutza sustatzea, kontuan hartuta:
 - Norberak zein beste batzuek hautemandako indarguneak eta hobetzeko ezaugarriak.
 - Bakoitzak dituen trebetasun eta gaitasunak.
- 2) Hauekin harremana duten lanbide-arloak ezagutzea.

MATERIALAK

- Jarduera: [Ispiluan begirada bat](#).
- Jarduera: [Tebetasunak ikasketekin lotzea](#).
- [Autoezagutzaren taula](#).

SAKONTZEKO...

Estekak: [Gaitasunei buruzko testa](#). Berritzegune.

***Baliabide hau erabiltzea borondatezkoa da.*

NOLA EGINGO DA?

***6. FITXA: ZER EGITEA GUSTATZEN ZAIT? ZER BALORE DITUT? HURRENGO SAIOAN EGITEA KOMENIGARRIA DA**

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: **banaka zein binaka**

- Ikasleak binaka jarri.
 - “[Ispiluan begirada bat](#)” jarduera banatu eta osatu.
 - Aukeraketaren arrazoiak komunean jarri eta eztabaidatu.

25 minutu.

2. EKINTZA

Lan-modalitatea: **banaka zein binaka**

- “[Tebetasunak ikasketekin lotzea](#)” jarduera banatu eta banaka osatu.
- Ikasleak binaka jarri:
 - Trebetasunen balorazioa komunean jarri eta eztabaidatu.

25 minutu.



- Banaka:
 - Proposatutako adjektiboen artean, hiru gaitasun eta hiru hobetzeko ezaugarri hautatu.
 - Gehien puntuatuenen artean lau gaitasun hautatu eta lanbide-arlo interesgarrienak idatzi.
 - “[Autoezagutzaren taula](#)”-n dagozkion zutabeak osatu.

*Taula 6. Fitxa: [Zer egitea gustatzen zait? Zer balore ditut?](#) egiteko gorde.

5 minutu.

[< Aurkibidea](#)

[< Aurkibidea](#)

6. FITXA: ZER EGITEA GUSTATZEN ZAIT? ZER BALORE DITUT?

2 - AUTOEZAGUTZA DBH / BATXILERGOA

HELBURUAK?

- 1) Autoezagutza sustatzea, kontuan hartuta:
 - Norberaren *interesak*.
 - Aipagarriak diren *lan balioak*.
- 2) Hauekin harremana duten lanbide-arloak ezagutzea.

MATERIALAK

- Jarduera: [Gustuak ikasketekin lotzea](#).
- Jarduera: [Nire baloreak](#).
- Bideoa: [Lan balioak](#).
- [Autoezagutzaren taula](#).

SAKONTZEKO...

Estekak:

- [Test de Orientación Vocacional](#) (gazt). No sé qué estudiar.
- [Programa de Orientación Profesional Autoaplicado](#) (gazt). Educaweb.

***Baliabide hauek erabiltzea borondatezkoa da.*

NOLA EGINGO DA?

5. FITXA: NOR NAIZ? ZER EGITEN DUT ONDO? AURREKO SAIOAN EGITEA KOMENIGARRIA DA

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: **banaka zein binaka**

- “[Gustuak ikasketekin lotzea](#)” jarduera banatu eta binaka osatu.
- Ikasleak binaka jarri:
 - Aukeraketaren arrazoiak komunean jarri eta azaldu.

20 minutu.

EKINTZA HAU BANAKA EGINGO DA

2. EKINTZA

Lan-modalitatea: **banaka zein talde handian**

- “[Lan balioak](#)” bideoa ikusi.
- “[Nire baloreak](#)” jarduera banatu eta binaka osatu.
- Balore garrantzitsuenak talde handian komunean jarri.

25 minutu.



- Banaka:
 - Gehien puntuatuenen artean hiru interes hautatu.
 - Bost balore hautatu.
 - “[Autoezagutzaren taula](#)”-n dagozkion zutabeak osatu.

*Taula [9. Fitxa: Hezkuntza sistema](#) eta [12. Fitxa: Nire ikasketak aztertuko ditut](#) egiteko gorde.

10 minutu.

EKINTZA HAU BANAKA ETA TALDE HANDIAN EGINGO DA

[< Aurkibidea](#)

[< Aurkibidea](#)

7. FITXA: LAGUNEKIN AFALTZEN

2 - AUTOEZAGUTZA **DBH / BATXILERGOA**

HELBURUAK?

- 1) Etorkizunean nire burua profesionalki irudikatzea.
- 2) Sor daitezkeen genero-estereotipoak detektatzea.

MATERIALAK

- Jarduera: [Role playing-a](#).
- Boligrafoak.
- Ikasgelako mahai eta aulkiak “afari” giroa sortzeko.

NOLA EGINGO DA?

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: banaka eta talde txikietan zein handian

- Egoera hau azaldu: *“Lagun talde bat afaltzeko elkartuko da ikastetxea amaitu eta 15 urtera. Denbora horretan ez dute harremanik izan, beraz, berrikuntzak kontatzeko irrikan daude, bereziki maila profesionalen”.*

5 minutu.

- Banaka:
 - “[Role playing-a](#)” jardueraren 1. taula osatu.
 - Bakoitzak bere gain hartuko duen rola ikasi.

20 minutu.

- 5 edo 6 ikaskideko taldeak sortu:
 - Altzariak antolatu.
 - Egoera talde txikietan antzeztu.
- Banaka, ondorioak “[Role playing-a](#)” jardueraren 2. taulan bildu.
- Ondorioak komunean jarri eta laburki eztabaidatu talde handian.

30 minutu.[< Aurkibidea](#)



[< Aurkibidea](#)

8. FITXA: ETORKIZUNAREN ARGAZKIA

2 - AUTOEZAGUTZA DBH / BATXILERGOA

HELBURUAK?

Ikasleen gogoak eta itxaropenak sakon aztertzea.

MATERIALAK

- Ogibide interesgarriei buruzko argazkiak.
- Kartoi meheak (ikasle bakoitzeko bana).
- Artaziak eta kola.
- Boligrafoak eta errotuladoreak.

SAKONTZEKO...

Bideoak: [Aprender a elegir ¿Qué carrera estudiar?](#) (gazt). TED Talk, 2018.

Estekak:

- [Lanbide familien argazkiak](#). Gasteizko Udala.
- [OriéntaTE](#) (LH). Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua.

***Baliabide hauek kontsultatzea borondatezkoa da.*

NOLA EGINGO DA?

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: banaka eta talde txikietan zein handian

- Kartoi-meheak banatu eta beharrezkoak diren materialak prestatu (artaziak, kola, boligrafoak eta errotuladoreak).
- Banaka, ikasle bakoitzak bere lanbide-lehentasunak poster batean irudikatu. Horretarako:
 - Zenbait ogibideri buruzko argazkiak kontsultatu (ikasleek aldeztatik aurretik hautatutakoak edo saioan zehar haien eskura jarritako aldizkari, egunkari edo web materialen bidez).
 - Ikasle bakoitzari erakargarrien iruditzen zaizkion ogibideen argazkiak itsatsi.
 - Lanbide bakoitzerako hitz gakoak idatzi, bakoitzak dituen funtzio eta/edo eginkizunekin, trebetasunekin, aukeratzeko arrazoiekin, itxaropen eta ideiekin lotuta.

20 minutu.



- 4 edo 5 ikaskideko taldeak sortu:
 - Posterren azalpen laburra.

15 minutu.



- Azken hausnarketa talde handian:
 - Lanbide hau aukeratu izanaren arrazoiak, barnekoak (ezaugarri pertsonaletan oinarrituta) ala kanpokoak (arrakasta edo irudi sozialarekin lotuak) dira?
 - Lanbide honi buruz ditudan ideiak eta itxaropenak errealitatearekin bat datoz? Zergatik?
 - Genero-esterotiporik al dago lanbideak aukeratzeko orduan?

20 minutu.

[< Aurkibidea](#)

[< Aurkibidea](#)

9. FITXA: HEZKUNTZA SISTEMA

3 - PRESTAKUNTZA ESKAINTZAK DBH / BATXILERGOA / LANBIDE HEZIKETA

HELBURUAK

- 1) Euskadiko hezkuntza-sistemako prestakuntza-bideak ezagutzea.
- 2) Prestakuntza ibilbidea hautatzea.

MATERIALAK

- Hezkuntza sistemaren egitura: organigrama.
- Bideoak:
 - Nola lanerako prestatuko zaituen Lanbide Heziketak.
 - Nola hasi eta garatu unibertsitateko ikasketak.
- Jarduera: [Nire prestakuntza aukerak ezagutzen al ditut?](#)
- Boligrafoak eta errotuladoreak.

NOLA EGINGO DA?

***5. FITXA: NOR NAIZ? ZER EGITEN DUT ONDO? ETA 6. FITXA: ZER EGITEA GUSTATZEN ZAIT? ZER BALORE DITUT? AURRETIK LANTZEA KOMENIGARRIA DA**

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: banaka zein talde handian

- “[Hezkuntza sistemaren egitura: organigrama](#)” dokumentua proiektatu.
- Prestakuntza-aukera motak (batxilergoa eta Lanbide Heziketako eta unibertsitateko ikasketak) eta modalitate eta sarbide probak azaldu.
- “[Lanbide Heziketa, lanerako prestaketa](#)” eta “[Nola hasi eta garatu unibertsitateko ikasketak](#)” bideoak ikusi.

15 minutu.

- Eztabaida-saioa talde handian:
 - Zer bide daude DBHko graduatua lortzeko?
 - DBH bukatu ondoren, zer aukera daude ikasten jarraitzeko?
 - Zer aukera daukat erdi-mailako ziklo bat egin ondoren? Eta batxilergoa egin ondoren?
 - Nola sar naiteke goi-mailako hezkuntza ziklo batera? Zein kasutan egin beharko nuke sarbide proba bat?
 - Goi-mailako arte irakaskuntzak egin al ditzaket? Nola?
 - Zer bide daude Unibertsitatera joateko?

25 minutu.

- “[Nire prestakuntza aukerak ezagutzen al ditut?](#)” jarduera banaka osatu, aukera bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta.

*Jarduera [12. Fitxa: Nire ikasketak aztertuko ditut](#) egiteko gorde.**15 minutu.**[< Aurkibidea](#)



[< Aurkibidea](#)

10. FITXA: LANBIDEAK AZTERTZEN

3 - PRESTAKUNTZA ESKAINTZAK DBH / BATXILERGOA

HELBURUAK?

- 1) Ikasketa mailaren eta motaren eragina ezagutzea:
 - *Langabezia-tasan.*
 - *Urteko batez besteko soldatan.*
- 2) Emakumeen eta gizonen artean lanbideetan eta soldatetan dauden aldeez jabetzea.

MATERIALAK

- Jarduera: *Ikasketa maila eta soldata.*
- Boligrafoak eta errotuladoreak.
- Kartoi-meheak.

SAKONTZEKO...

Bideoak:

- [Lanbide eta ikasketei buruzko bideoak \(Ikaslanbideoak\).](#) Ikaslan Gipuzkoa.
- [Esperientziak.](#) Etorlan.

***Baliabide hauek kontsultatzea borondatezkoa da.*

NOLA EGINGO DA?

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: talde txikietan zein handian

- 4 edo 5 ikaskideko taldeak sortu:
 - “*Ikasketa maila eta soldata*” jarduera aztertu.
 - Alderdi deigarrienak komentatu.

15 minutu.



- Eztabaida-saioa talde handian:
 - Grafikoa ikusi ondoren, ikastea garrantzitsua dela uste al duzu? Zergatik?
 - Ikasketa-maila eta soldata proportzionalak izan behar dira? Zergatik?
 - Zure ustez, zergatik daude lanbideen artean soldata desberdintasunak?
 - Zer lanbide erabaki ohi dituzte neskek? Eta mutilek?
 - Zure ustez, nola eragiten du horrek bere garapen profesionalean?
 - Aldatu al duzu zure prestakuntza akademikoari buruzko iritzia? Zergatik?

25 minutu.



- 4 edo 5 ikaskideko taldeak sortu:
 - “*Hezkuntza*” kontzeptua definitu eta hiru alde on adierazi.
 - Planteatuko proposamenak artoi-meheetan jaso.

15 minutu.

[< Aurkibidea](#)



[< Aurkibidea](#)

11. FITXA: ZER IZAN NAHI DUT HELDUAROAN?

3 - PRESTAKUNTZA ESKAINTZAK DBH / BATXILERGOA

HELBURUAK?

- 1) Intereseko lanbideen ezaugarriak ezagutzea.
- 2) Lanbideak lanpostu desberdinekin lotzea.

MATERIALAK

- Jarduera: [Lanbideak lanpostuekin lotzea](#).
- Interneteko konexioa duten ordenagailuak.
- Boligrafoak.

SAKONTZEKO...

Estekak: [Gazteria - Lana eta prestakuntza](#). Gasteizko Udala.

***Baliabide hauek erabiltzea borondatezkoa da.*

NOLA EGINGO DA?

***12. FITXA: NIRE IKASKETAK AZTERTUKO DITUT AURRETIK LANTZEA KOMENIGARRIA DA**

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: **banaka**

- Banaka:
 - “Nor naiz? Zer egiten dut ondo?”, “Zer egitea gustatzen zait? Zeintzuk dira nire baloreak?” eta “Nire ikasketak aztertuko ditut” fitxetan landutako jarduerak birpasatu.
 - “[Lanbideak lanpostuekin lotzea](#)” jarduera banatu eta lehenengo lau galderak bete. **20 minutu.**



- Idatzitako lanbideak aztertu eta interesgarriak izan daitezkeen beste aukera batzuk baloratu. Web orriak (**informazio hau soilik gaztelaniaz eskuragarri dago*):
 - [Lanak: arloen araberako bilakatzaila](#). Etorlan
 - [Buscador de ocupaciones - Barcelona Activa](#).
 - [Diccionario de profesiones - Educaweb](#).
 - [Profesiones - No sé qué estudiar](#).
 -
- Gainerako galderak bete.
- Erabakitako aukerei buruzko azken hausnarketa egin. **35 minutu.**

[< Aurkibidea](#)



[< Aurkibidea](#)

12. FITXA: NIRE IKASKETAK AZTERTUKO DITUT

3 - PRESTAKUNTZA ESKAINTZAK DBH / BATXILERGOA

HELBURUAK?

Ondorengo ikasketei buruzko erabakirik hoberena hartzea. Horretarako, ikasleek:

- Bere beharretara gehien egokitzen diren *prestakuntza-aukerak* hautatuko dituzte.
- Ikasketa erakargarrienen *ezaugarriak* ikertuko dituzte.
- Prestakuntza-aukera bakoitzaren *xehetasunak* baloratuko dituzte.

MATERIALAK

- Bideoa: [Nola aukeratu zer ikasi](#).
 - Dokumentua: [Prestakuntza-eskaintza](#) (inprimatuta eta PDF-n).
 - Dokumentua: [Jarraibideak + legenda](#).
 - Jarduera: [Nire ikasketak](#).
 - Boligrafoak eta margoak.
 - Ordenagailuak.
-
- Dokumentua: [Batxilergoko irakasgaiak](#) (DBH).
 - Dokumentua: [Prestakuntza ibilbideak](#) (DBH).

SAKONTZEKO...

- [Orientabiderako laguntza gida: Lanbide Heziketa](#).
- [Unibertsitatera sartzeko bideak](#) - EHU.
- [Sarrera-eskaerako argibideak](#) (graduak) - Deustuko Unibertsitatea.

**Baliabide hauek kontsultatzea borondatezkoa da.

NOLA EGINGO DA?

***9. FITXA: HEZKUNTZA SISTEMA AURRETIK LANTZEA KOMENIGARRIA DA**

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: banaka

- “Autoezagutzaren taula”-n eta “Nire prestakuntza aukerak ezagutzen al ditut?” jardueretan landutako gaiak birpasatu.
- “[Nola aukeratu zer ikasi](#)” bideoa ikusi.
- Ikasgelako hormetan “[Prestakuntza-eskaintza](#)” dokumentuaren orrialdeak ipini.
- “[Nire ikasketak](#)” jardueran, titulazioari dagozkion laukitxoetan idatzi (1. taula).

20 minutu.



- Ikasle bakoitzari “[Jarraibideak + legenda](#)” dokumentua banatu.
- Ordenagailuan, “[Prestakuntza-eskaintza](#)” dokumentuaren bidez (PDFn), hautatutako ikasketei buruzko informazioa bilatu eta “[Nire ikasketak](#)” jardueraren 1. taula osatu.
- Aukera bakoitzaren xehetasunak baloratu eta guztizko puntuazioa kalkulatu (1. eta 2. taulak).
- Ikasle bakoitzaren beharretara gehien egokitzen den/diren aukera/k erabaki eta arrazoiak azaldu.

25 minutu (DBH)/35 minutu (Batxilergoa).



***DBHrako BAKARRIK**

- “[Batxilergoko irakasgaiak](#)” eta “[Prestakuntza ibilbideak](#)” dokumentuen bidez irakasgaien banaketa kontuan hartuta, [modalitateko ikasgaien haztapen koefizienteak](#) kontsultatu.

10 minutu.

[< Aurkibidea](#)

[< Aurkibidea](#)

13. FITXA: NIRE LANBIDE PROIEKTUA

3 - PRESTAKUNTZA ESKAINTZAK **BATXILERGOA / LANBIDE HEZIKETA**

HELBURUAK?

Helburu profesionaleri buruzko erabakiak hartzea, kontuan hartuta:

- Helburuak lortzeko eman behar diren *pausoak*.
- Egon daitezkeen *zailtasunak*.

MATERIALAK

- Bideoa: [Lana lortzeko bidea](#).
- Jarduera: [SMART metodologia](#).
- Dokumentua: [Erabakiak hartzeko arazoak](#).
- Boligrafoak.

SAKONTZEKO...

Bideoak:

- [8 keys to success](#) (ing). TED Talk, 2010.
- [Pasos claves para la toma de decisiones acertadas](#) (gazt). GCFAprendeLibre, 2021.
- [Tienes un proyecto de vida](#) (gazt). TECNOMURCIA, 2014.
- [Diez piedras en las que todos tropezamos al tomar decisiones](#) (gazt). IESE Business School, 2017.

***Baliabide hauek kontsultatzea borondatezkoa da.*

NOLA EGINGO DA?

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: **banaka eta talde handian**

- “[Lana lortzeko bidea](#)” bideoa ikusi.
- Eztabaida-saioa talde handian:
 - Zer da helburu bat?
 - Helburuak izatea garrantzitsua al da? Zergatik?
 - Nola hartu behar dira erabakiak? Zergatik?
- “[SMART metodologia](#)” jarduera banatu eta banaka osatu.

30 minutu.

2. EKINTZA

Lan-modalitatea: **banaka zein talde handian**

- 4 edo 5 ikaskideko taldeak sortu:
 - “[Erabakiak hartzeko arazoak](#)” dokumentua irakurri.
 - Testuaren alderdi garrantzitsuenak komentatu.
- Eztabaida-saioa talde handian:
 - Zure ustez, zailtasunak aurkitzea alderdi txarra al da? Zergatik?
 - Zein zailtasun dira ohikoenak zure egunerokoan?
 - Nola egiten diezu aurre?
 - Zein estrategiek lagun zaitzakete horiek gainditzen?

25 minutu.

[< Aurkibidea](#)

[< Aurkibidea](#)

14. FITXA: LAN-MERKATUARI BURUZKO MAHAI-INGURUA

4 - LAN ESKAINTZAK BATXILERGOA / LANBIDE HEZIKETA

HELBURUAK?

- 1) Lan-merkatuaren egoerari buruzko analisisa egitea.
- 2) Sor daitezkeen zenbait mito eta/edo estereotipo detektatzea eta ezabatzea.

MATERIALAK

- Jarduera: [Titularrak](#).
- Boligrafoak eta orriak.

SAKONTZEKO...

Bideoak: [El mercado laboral](#) (gazt). Cité de l'Économie, 2015.

***Baliabide hauek kontsultatzea borondatezkoa da.*

NOLA EGINGO DA?

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: talde txikietan zein handian

- **Lau** talde sortu:
 - “**Titularrak**” jardueraren bost titular banatu talde bakoitzari.
 - Titularren edukiei buruzko gogoeta txikia egin (10 minutu).
- Talde handian komunean jarri:
 - Titular hauen edukiekin ados al zaude? Zeinekin?
 - Errealitatea islatzen dutela uste duzu? Zergatik?
 - Ba al dago baieztapen hauek ohikoagoak diren lan-arlo edo lanbiderik?
 - Ba al dago generoen arteko alderik baieztapen hauek aplikatzerakoan?
 - Zure ustez, zein da sinesmen hauen jatorria? Zer ondorio dituzte?

30 minutu.



- 4 edo 5 ikaskideko taldeak sortu:
 - Problematikoagoak diren **bi** titular hautatu (talde bakoitzeko).
 - Egoera horiei aurre egiteko maila desberdinetan (pertsonala/familiarra, eskolakoa, politikoa...) estrategiak planteatu.
- Aurkeztutako ondorioei buruzko azken hausnarketa talde handian (10 minutu).

25 minutu.

[< Aurkibidea](#)

[< Aurkibidea](#)

15. FITXA: LAN-MERKATUAREN ERREALITATEA

4 - LAN ESKAINTZAK **BATXILERGOA / LANBIDE HEZIKETA**

HELBURUAK?

Lan merkatuaren gaur egungo egoerari buruz hausnartzea, kontuan hartuta:

- Lanpostuetan dauden etengabeko *aldaketak*.
- Lan-mundura egokitzeko beharrezkoa den *denboran zeharreko prestakuntza*.
- Enpresek eskatzen duten *espezializazio-maila*.

MATERIALAK

- Dokumentua: [Etorkizuneko lana](#).
- Jarduera: [Datuak bilduko ditugu](#).
- Boligrafoak.

SAKONTZEKO...

Bideoak:

- [Zeintzuk izango dira etorkizuneko lanpostuak?](#) Debagoiena 2030, 2021.
- [El trabajo del futuro](#) (gazt). Expertos Digitales, 2014.

***Baliabide hauek kontsultatzea borondatezkoa da.*

NOLA EGINGO DA?

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: banaka eta talde txikietan zein handian

- “[Etorkizuneko lana](#)” dokumentua banaka irakurri.
- Eztabaida-saioa talde handian:
 - Zer uste duzu teknologia berriek lan-munduan dakartzaten aurrerapenei buruz?
 - Ikaskuntza eta prestakuntza ulertzeko modua aldatu dela uste al duzu? Horrela bada, nola?
 - Zer uste duzu sare sozialak lan-tresna gisa erabiltzeari buruz? Zergatik?

25 minutu.



- 4 edo 5 ikaskideko taldeak sortu:
 - “[Datuak bilduko ditugu](#)” jarduera banatu eta osatu.
- Eztabaida-saioa talde handian:
 - Daturen bat deigarri iruditu zaizu? Zergatik?
 - Zure ustez, datu hauek aldatuko dira epe laburrean? Horrela bada, nola eta zein sektoretan?
 - Informazio honek zure prestakuntzari buruzko iritzia aldarazi dizu?

30 minutu.

EKINTZA HAU TALDE TXIKIETAN ZEIN HANDIAN EGINGO DA

[< Aurkibidea](#)

[< Aurkibidea](#)

16. FITXA: NIRE LAN BILAKETA

4 - LAN ESKAINTZAK **LANBIDE HEZIKETA**

HELBURUAK?

Curriculum vitae on bat egiten ikastea, kontuan hartuta:

- Zer *informazio* den garrantzitsua.
- Zer curriculum *mota* dauden.
- Nola *antolatu* informazioa eta zer mota aukeratu, kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera.

MATERIALAK

- Bideoa: [CV erakargarri eta eraginkor bat egiteko gakoak](#).
- Dokumentua: [Kasuak](#).
- Jarduera: [Nire curriculum vitae-a](#).
- Boligrafoak eta errotuladoreak/azpimarratzaileak.

SAKONTZEKO...

Bideoak: Nola prestatu curriculum on bat. GazteBizHitza, 2017.

Artikuluak: Enpresarekin lehen kontaktua: [Curriculum](#). Gazteaukera.

***Baliabide hauek kontsultatzea borondatezkoa da.*

NOLA EGINGO DA?

***17. FITXA: NEURE BURUA ENPRESA BATI AURKEZTEA AURREKO SAIOAN LANTZEA ETA SORTUTAKO TALDEAK MANTENTZEA KOMENIGARRIA DA**

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: talde txikietan zein handian

- “CV erakargarri eta eraginkor bat egiteko gakoak” bideoa ikusi.
- Curriculum mota desberdinak azaldu (kronologikoa, alderantzizko kronologikoa, kronologiko funtzionala, mistoa eta sortzailea).

15 minutu.



- 2 edo 3 ikaskideko **hamar** talde sortu:
 - o “Kasuak” dokumentuaren bi talde bakoitzeko kasu bat banatu eta “Nire curriculum vitae-a” jarduera osatu.
 - o Komunean jarri eta eztabaida-saioa kasu bera duten taldeen artean.
- Aurkezpen laburra talde handian (10 minutu).

40 minutu.

[< Aurkibidea](#)



[< Aurkibidea](#)

17. FITXA: NEURE BURUA ENPRESA BATI AURKEZTEA

4 - LAN ESKAINTZAK LANBIDE HEZIKETA

HELBURUAK?

- 1) Aurkezpen gutun bat egiten ikastea, kontuan hartuta:
 - Zer *informazio* den garrantzitsua.
 - Zer aurkezpen gutun *mota* daude.
 - Nola *antolatu* informazioa eta zer mota aukeratu, kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera.

MATERIALAK

- Bideoak:
 - ◆ [Aurkezpen gutuna](#).
 - ◆ [Norbera hautagai](#).
- Dokumentua: [Kasuak](#).
- Jarduera: [Nire aurkezpen gutuna](#).
- Boligrafoak.

SAKONTZEKO...

Artikuluak: [Enpresarekin lehen kontaktua: aurkezpen-gutuna](#). Gazteaukera.

***Baliabide hauek kontsultatzea borondatezkoa da.*

NOLA EGINGO DA?

***16. FITXA: NIRE LAN BILAKETA AURREKO SAIOAN EGITEA ETA SORTUTAKO TALDEAK MANTENTZEA KOMENIGARRIA DA**

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: talde txikietan zein handian

- [“Aurkezpen gutuna”](#) eta [“Norbera hautagai”](#) bideoak ikusi.
- Aurkezpen gutun mota desberdinak azaldu (hautagaitza propioa eta iragarki bati erantzuna emateko).

15 minutu.



- 2 edo 3 ikaskideko **hamar** talde sortu:
 - [“Kasuak”](#) dokumentuaren bi talde bakoitzeko kasu bat banatu eta [“Nire aurkezpen gutuna”](#) jarduera osatu.
 - Komunean jarri eta eztabaida-saioa kasu bera duten taldeen artean.
- Aurkezpen laburra talde handian (10 minutu).

40 minutu.

[< Aurkibidea](#)

[< Aurkibidea](#)

18. FITXA: LAN-MERKATURAKO BIDEA

4 - LAN ESKAINTZAK **LANBIDE HEZIKETA**

HELBURUAK?

- 1) Enpresek lanpostuetan eskatzen dituzten betebeharrak ezagutzea.
- 2) Norberaren curriculum eta aurkezpen gutuna sortzea.

MATERIALAK

- Jarduera: [Zer nahi dute enpresek?](#)
- Bideoa: [Lana bilatzeko zenbait pauso.](#)
- Interneteko konexioa duten ordenagailuak.

SAKONTZEKO...

Estekak: [Alta eskaeraren erregistroa Lanbiden.](#)

***Baliabide hauek kontsultatzea borondatezkoa da.*

NOLA EGINGO DA?

***16. FITXA: NIRE LAN BILAKETA ETA 17. FITXA: NEURE BURUA ENPRESA BATI AURKEZTEA AURRETIK LANTZEA KOMENIGARRIA DA**

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: talde txikietan

- “Lana bilatzeko zenbait pauso” bideoa ikusi.
- 4 edo 5 ikaskideko taldeak sortu:
 - “Zer nahi dute enpresek?” jarduera banatu eta osatu.
 - Enplegu-atariak: [Lanbide](#), [Infojobs](#) eta [Infoempleo](#).

20 minutu.

EKINTZA HAU TALDE TXIKIETAN EGINGO DA

2. EKINTZA

Lan-modalitatea: banaka

- “Nire curriculum vitae-a” eta “Nire aurkezpen-gutuna” ariketetan landutako gaiak birpasatu.
- Sor daitezkeen zalantzak argitu.
- Ikasitakoa kontuan izanda, norberaren curriculum eta aurkezpen-gutuna egin.

35 minutu.

[< Aurkibidea](#)

[< Aurkibidea](#)

19. FITXA: ZER EGIN DEZAKET ARAZO BAT BADAUKAT?

4 - LAN ESKAINTZAK **BATXILERGOA / LANBIDE HEZIKETA**

HELBURUAK?

Lan-arloan sor daitezkeen arazoei aurre egiteko estrategia eraginkorrak garatzea. Horretarako, aztertuko dute:

- Zertan datza *gatazka* bat.
- Aurre egiteko *estrategia* motak.
- Estrategien *egokitzapena* egoera desberdinetara.

MATERIALAK

- Jarduera: [Arazoak eta konponbideak](#).
- Boligrafoak.

NOLA EGINGO DA?

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: talde txikietan zein handian

- Eztabaida-saioa talde handian:
 - Zer da arazo bat?
 - Zergatik sortzen dira arazoak?
 - Nola konpondu ohi dituzu?
 - Komentatu zure egunerokoan aurre egin behar izan diozun gatazkaren bat.

15 minutu.



- 4 edo 5 ikaskideko taldeak sortu:
 - “[Arazoak eta konponbideak](#)” jarduera banatu eta osatu.
- Proposatutako konponbideak talde handian komunean jarri.

25 minutu.



- Azken hausnarketa talde handian:
 - Zertan oinarritzen diran planteatutako aurre egiteko strategiak, arazoan, emozioetan edo sahiestean?
 - Estrategia batzuk besteak baino erabilgarriagoak edo hobekak direla uste duzu? Zergatik?
 - Zein egoeratan dira eraginkorrak aurre egiteko estrategia batzuk edo besteak?
 - Zure ustez, neskek eta mutilek erabiltzen dituzten aurre egiteko estrategien arteko alderik al dago? Zergatik?

20 minutu.

[< Aurkibidea](#)

[< Aurkibidea](#)

20. FITXA: LORTU AHAL DUT

4 - LAN ESKAINTZAK BATXILERGOA / LANBIDE HEZIKETA

HELBURUAK?

- 1) Norberaren gainditzearen zenbait istorio ezagutzea.
- 2) Motibazioak gure helburuak lortzeko duen garrantziaz jabetzea.

MATERIALAK

- Jarduera: [Motibazio istorioak](#).
- Kartoi meheak.
- Errotuladoreak.

SAKONTZEKO...

Bideoak:

- [El jabón, un vídeo para reflexionar](#) (gazt). Juan Antonio Quintero, 2013.
- [Marcianos - vídeo de motivación](#) (gazt). Luis Eduardo Zamora Nava, 2009.

Artikuluak: [Historias de motivación](#) (gazt). Gasteizko Udala.

***Baliabide hauek kontsultatzea borondatezkoa da.*

NOLA EGINGO DA?

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: talde txikietan zein handian

- Eztabaida-saioa talde handian:
 - Nola definituko zenuke motibazioa?
 - Zure ustez, motibazioa garrantzitsua da? Zergatik?
 - Motibazioa denboran zehar alda daitekeela uste duzu? Horrela bada, zein egoeratan sentitzen zara gehien motibatuta?
 - Aipatu motibazioa galdu duzun zenbait egoera eta nola saiatu zaren berreskuratzen. Lortu al duzu?

15 minutu.



- 4 edo 5 ikaskideko **sei** talde sortu:
 - “[Motibazio istorioak](#)” jardueraren bost kasu banatu talde bakoitzari.
 - Kasu bat hautatu proposatuen artean.
 - Aurkezpen laburra istorioari eta hautaketaren arrazoiei buruz talde handian.

25 minutu.



- Emakume baten gainditze pertsonalekoa den istoria bilatu.
- Kartoi-meheetan bere izena eta motibazio-lelo bat jaso.
- Ikasgelako paretetan itsatsi egindako kartelak.

15 minutu.

[< Aurkibidea](#)

[< Aurkibidea](#)

21. FITXA: ZER IZAN NAHI DUT, EKINTZAILE EDO SOLDATAPEKO?

5 - EKINTZAIETZA BATXILERGOA / LANBIDE HEZIKETA

HELBURUAK?

Bakoitzak egin nahi duen lan motari buruzko erabakia hartzea, kontuan hartuta:

- Ekintzailearen eta soldatapekoaren *ezaugarri nagusiak*.
- Bi aukeren *abantailak* zein *desabantailak*.

MATERIALAK

- Bideoa: [Gazte, ¿emprendes o empierdes?](#)
- Jarduera: [Norentzat gustatuko litzaidake lan egitea?](#)
- Boligrafoak eta margoak.

SAKONTZEKO...

Bideoak: [Zure enpresa sortzeko gakoak eta gomendioak](#). GazteBizHitza.

***Baliabide hauek kontsultatzea borondatezkoa da.*

NOLA EGINGO DA?

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: banaka eta talde txikietan zein handian

- Eztabaida-saioa talde handian:
 - Nola definituko zenuke ekintzailtza? Eta soldatapeko lana?
 - Aukera bat bestea baino hobea dela uste duzu? Zein kasutan?
 - Zure ustez, alderik al dago neska eta mutilen artean lan mota erabakitzeke orduan? Zergatik?
- “[Gazte, ¿emprendes o empierdes?](#)” bideoa ikusi.

15 minutu.



- 4 edo 5 ikaskideko taldeak sortu:
 - “[Norentzat gustatuko litzaidake lan egitea?](#)” jarduera banatu.
 - Bi lan-motetarako beharrezkotzat jotzen diren trebetasunak proposatu eta aipatu. Taularen “trebetasunak” atala osatu eta puntuazioak kalkulatu.
 - Bi lan-motetan hautemandako abantailak eta desabantailak proposatu eta aipatu. “Abantailak eta desabantailak” atala osatu eta puntuazioak kalkulatu.

30 minutu.



- Banaka:
 - Bakoitzari gehien egokitzen zaion aukera baloratu.
 - Hartutako erabakiari buruzko azken hausnarketa egin.

20 minutu.

[< Aurkibidea](#)



[< Aurkibidea](#)

22. FITXA: NI IZAN AL NAITEKE EKINTZAILE?

5 - EKINTZAIETZA BATXILERGOA / LANBIDE HEZIKETA

HELBURUAK?

- 1) Hainbat ekintzailletza esperientzia ezagutzea.
- 2) Geure buruari profil ekintzailea dugun ala ez galdetzea.

MATERIALAK

- Jarduera: [Ekintzaileak](#).
- Boligrafoak.

NOLA EGINGO DA?

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: talde txikietan zein handian

- “Ekintzaileak” jarduera banatu.
- Eztabaida-saioa talde handian:
 - Argazki bakoitza dagokion pertsonarekin lotu. Guztiak ezagutzen dituzu?
 - Zure ustez, zein ezaugarrik definitzen dituzte hoberen?
 - Zure ustez, zein izan da arrakasta izateko gakoa?
 - Zer dute komunean ekintzaile hauek?

15 minutu.



- 4 edo 5 ikaskideko taldeak sortu:
 - “Ekintzaileak” jardueraren taula osatu.
- Egindako ekarpenak talde handian komunean jarri.

20 minutu.



- Eztabaida-saioa talde handian:
 - Ekintzaile izateko trebetasun bereziak behar al dira edo edonor izan daiteke?
 - Halako trebetasunen bat daukat?
 - Sektore batzuetan errazagoa da ekintzaile gisa arrakasta izatea?
 - Emakumeen eta gizonen artean alderik al dago enpresa bat sortzeko orduan? Horrela bada, zeintzuk?

20 minutu.

[< Aurkibidea](#)



[< Aurkibidea](#)

23. FITXA: SOR EZAZU ZURE ENPRESA

5 - EKINTZAILETA BATXILERGOA / LANBIDE HEZIKETA

HELBURUAK?

- 1) Enpresa bat sortzeko kontuan hartu behar diren alderdiak ezagutzea.
- 2) Komunikazio-estrategiak garatzea bezeroak erakartzeko.
- 3) Enpresa baten onurak zein balizko arriskuak baloratzea.

MATERIALAK

- Jarduera: [Nire enpresa proiektua](#).
- Boligrafoak.

SAKONTZEKO...

Bideoak: [Lanbide Autoenplegua](#). Lanbide.

***Baliabide hauek kontsultatzea borondatezkoa da.*

NOLA EGINGO DA?

***22. FITXA: NI IZAN AL NAITEKE EKINTZAILE? AURRETIK LANTZEA KOMENIGARRIA DA**

PROPOSAMENA

1. EKINTZA

Lan-modalitatea: talde txikietan zein handian

- 4 edo 5 ikaskideko taldeak sortu:
 - o “[Nire enpresa proiektua](#)” jarduera banatu eta 1. taula osatu.

15 minutu.



- Enpresa-proiektu bakoitzaren aurkezpen laburra egin (3-4 minutu taldeko).
- Talde txikietan, enpresen balorazioa egin gainerako taldekideek aurkeztu bitartean (2. taula).

30 minutu.



- Azken balorazioa talde handian:
 - o Enpresa bakoitzak lortutako puntuazioak komunean jarri.
 - o Arrazoiaren azalpen laburra eman.

10 minutu.

[< Aurkibidea](#)



3

GPS eduki gehigarriak



[< Aurkibidea](#)

GPS EDUKI GEHIGARRIAK

MAILA GUZTIAK

GPS BIDEOAK: ENPRESEI ELKARRIZKETAK SEKTOREKA

Lan-mundua ikasgelara hurbiltzeko, elkarrizketak egiten zaizkie hainbat sektoretako tokiko enpresei. Gai hauek lantzen dira, besteak beste: gaitasun eskatuenak, lan-merkatua, hautaketa-prozesua eta genero-ikuspegia.

Aholkularitza espezializatuak eta informatika: Oreka IT (EU)	Aurrezki Kutxa: Laboral Kutxa (EU)	Bioteknologia: I+Med (ES)	Elikadura: UDAPA (EU)
Enpresentzako zerbitzuak: Eulen Taldea (ES)	Industria (fabrikazioa): Aratubo (ES)	Industria (fabrikazioa): Grado Cero (ES)	Industria (fabrikazioa): RPK (EU)
Industria (fabrikazioa eta mantentze-lanak): Electra Vitoria – Orona (ES)	Instalazio eta muntaketa elektrikoak: Del Valle Aguayo (ES)	Logistika: DHL (ES)	Osasuna: Quirón (ES)
Ostalaritza eta turismoa: Gran Hotel Lakua (ES)	Txikizkako merkataritza eta banaketa: EROSKI (EU)		

GAITASUN PROFESIONALAK


→ [Gaitasun profesionalen taula.](#)

ANTZEZLANA


→ ["Desorientando.com"](#) antzezlan.

→ ["Desorientando @ padres y madres"](#) antzezlan.

[< Aurkibidea](#)



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala